

**KONG XIU / A WOMAN • Txina**

Wang Chao (zuzendaria eta gidoilaria)

SERGIO BASURKO

Wang Chao zuzendarri eta gidoilaritxinatarra ez da zinema-mundura iritsi berri bat, Chen Kaigeren laguntzai-le gisa hasi baitzen eta ohiko parte-hartzale da Cannesko Un Certain Regard atalean; alabaina, orain arte sekula ez du Zinemaldiko lehian eskuhartu.

Sail Ofizialeko azken filma noiz edo noiz Urrezko Maskorraren irabazle suertatu izan da, aitzitik, *A Woman* pelikulak nekez limurtuko ditu epaimahaikideak; egia esatearren, duela 30 urteko filma baitirudi. Egituraz ederra baina korbentzionala, denboraz kanpoko itxuraz eta prosa erosoegiaz baliatuta, lehiazko azken filmak zuhertziaz itxi du orokorean ona izan den edizio hau.

Chaoren lanak XX. mendeko 60ko hamarkadaren amaieratik 80ko hamarkadaren hasierara arte Txinan bizi ziren bizi-baldintza gogorrak kontatzen eta deskribatzen ditu. Eta emakume bat, hiru seme-alabaren ama, bi senarren emaztea (dibortziatu ondoren), ehungintza-fabrika batean lanaldi astunek uzten zioten denbora librean idazle autodidakta bihurtzena, Txinaren eraldaketaren ispilu bihurtu du.

## Emakume bat ondo bidean



Wang Chao zuzendaria modu telematikoan hitz egin du filmaren proiekzioaren osteko prentsurrekoan.

GARI GARAIALDE

Wang Chaok azaldu duenez, Zhang Xiu Zen-en "Dream" eleberri autobiografikoa egokitzea erabaki zuen, alde batetik, bere familia gororazi ziolako: "Bere bizitza nirearen oso antzekoa zen, langile-familia batetik nator, gurasoak gogorarazi

zizkidan". Bestalde, bere burua idazlearen "emozioetan, porrotetan" islatuta ikusi zuela zehaztu du.

"Azpimarratu nahi izan dut emakumea independentea dela maila ekonomikoan eta mentalean, eta [Kong Xiu] indartsu bihurtu zen eta zaita-

sun guztiak gainditzea lortu zuen", azaldu du zuzendaria.

Shen Shi Yu aktorearen aukeraketa dagokionez, zinemagileak adierazi du "gaztea dela eta ez dela bereziki ezaguna Txinan", baina "bere karisma" interesatu zitzaison.

### A tale of female emancipation

At a video conference he gave yesterday after the screening of *A woman*, the Chinese director, Wang Chao, explained that he had decided to adapt the story based on the life of the author Zhang Xiu Zhen, that followed her from her late teens into adulthood, when she became a published writer, because she reminded him of his own mother, who was a contemporary of hers. He confessed that it had been much more difficult than making a film set in the present day, and asked about his leading actress, he replied that what had led him to choose her was her charisma and her tough, strong-willed personality that reminded him of his mother and of women in the 1960s and 70s. As for whether there had been progress in recent years with gender violence, he said that this was not just a problem in China, but occurred everywhere.



## zinemaldiarekin

**EL  
DIARIO  
VASCO**

PATROCINADOR DEL 70 FESTIVAL DE SAN SEBASTIÁN  
70. DONOSTIA ZINEMALDIAREN BABESLEA